

Osasunean eta gaixotasunean, heriotzak banandu arte



Zergatik bai edo zergatik ez? Hipoteka baduzu, zure seme-alabak unibertsitatera badoaz edo heriotza kasuan zure familiak diru-sarreraren mailari eustea nahi baduzu, erantzuna baiezkoa izango da beti. BAI, **bizi aseguruak gehien maite duzuna babetuko du, heriotza edo baliaezintasun kasuan.**

Erabaki bat hartu aurretik, ondorengo galdera hau egin behar diozu zeure buruari: **“zer diru-kopuru aseguratu behar dut?”** Horrez gain, zure familian egiten duzun diru-sarrera ekarpena baloratu behar duzu, baita zure familiak beste diru-sarrerarik duen ere. Seme-alaba kopurua, horien adina eta familiararen diru-sarreraren mende egongo diren denbora eduki behar dituzu kontuan. Horretaz aparte, baduzu hipoteka-mailegurik, autoarena...? Ordaintzen jarraitu beharko, edo ez? Baldintza horiek guztiek zehaztuko dute kontratatu beharreko diru-kopurua.

Heriotza kasuan

Aseguruak familiari eragin diezaiokeen inpaktu ekonomikoa txikitzen du. Bizi aseguruak edozein kausagatiko heriotza estaltzen du, eta zirkulazio istripuaren ondo-

riozko heriotzaren berme osagarriak kontratatzeke aukera ere badago, baita beste istripuen ondoriozkoak ere, lan istripuaren ondoriozkoak, besteak beste.

Unespa Memoria Sozialaren arabera zendutako Bizitza-Aseguruak kalte-ordaina emandako pertsonetako kopurua da, 1.723 milioi euroko urteroko zenbateko ertain batzuegatik, urteko inguru 50.000ko.

Baita bizirik egonda ere

Baliaezintasun absolutua edo iraunkorra, edo gaixotasun larri bat arintzen duten estaldura osagarriak ere badaude. Izan ere, jarduera profesionala uztera eta, hortaz, diru-sarrerak jasotzeari uztera behartzen duten zirkunstantziak dira.

Egia esan, familia-ekonomia askoren salbamendu-txalupa bihurtzen da aseguru hori, eta funtsezkoa da, ia, diru-sarrerak familiarako kide baten mende bakarrik badaude.

Guk lagunduko dizugu, **profesional independenteak baikara; lehenik eta behin, arreta handiz aztertuko ditugu zure zirkunstantziak, “zure neurrirako” bizi aseguru eratzeko.** Gero... zeuk erabaki!

“Batzuek uste dute nahi izatea nahikoa dela lagunak izateko, osasuntsu egoteko osasuna nahi izatea nahikoa balitz bezala” (Aristoteles)

Zure osasuna denbora kontua da, ez diru kontua. Segur aski, konfiantza duzu zure medikuarengan, baina pribatutik ere joaten zara beste espezialista batzuegana, pediatrarengana, ginekologoarengana, dentistarengana eta abar.

Hala bada, une ezin hobea duzu hau osasun laguntza azkarra bermatuko dizun aseguru planteatzeko eta, oso garrantzitsua: zuk hautatutako profesionalekin, osasun publikoan ezin baituzu halakorik hautatu. Osasun aseguruaren inguruko hizkuntzak hitz arraro ugari ditu, ordea, eta ezin beti ulertu. Planteatu dizkiguzuen hainbat zalantza argituko dizkizuegu jarraian.

Zer da gabealdia?

Osasun aseguru kontratatzen duzunik polizak estalitako osasun zerbitzu batzuk erabiltzen hasi ahal arteko denbora da.

Zer da koordainketa?

Hainbat osasun zerbitzutarako ordaindu behar duzun diru-kopuru txiki bat da; espezialistaren batengana joateko edo osasun proba espezifikoren bat egiteko, adibidez. Zure aseguruaren arabera izaten da, eta diru-kopuru finkoa izaten da.

Zer dira aurreizateak?

Zure osasun poliza kontratu aurretik edo gabealdian diagnostikatutako gaixotasun edo patologiak.

Zer adinean?

Zenbat eta gazteago, hobe. Osasun aurreizate guztiak eta horiek dakartzaten eskusioak saihestuko dituzu. Normalki, kontratazio-adina mugatuta egoten da 65 urtetik aurrera.

Zer egin kontratatu aurretik?

Gure aseguru-artekaritzara etorri. Merkatuan dauden polizak aztertuko ditugu, behar dituzun estaldura eta prestazioak sartzen direla bermatzeko eta aseguru-etxeen zerbitzuak azalduko dizkizugu.



Familiaburua: nahiz eta ez jo, ordaindu!



“Aste Santuko prozesio bat pasatzen ari zen. Zure lagunak gonbidatu zenituen. Ume batek loreontzi bat bota zuen nahi gabe, eta pasotako bat hautsi, errebotatu, eta buruan zauritu zuen kofradetako bat”.

“Zure semea Poloniara joana zen Erasmusekin. Egun batean, klasera bizikletaz zihoala, oinezko bat jo eta gorputzeko kalteak erreklamatu zizkioten”.

Litekeena da ordaindu behar izatea; irakurri arretaz zure etxe aseguru edo Familiaren Erantzukizun Zibileko aseguru.

“Ez naiz ni izan”

Zu ez zeuden etxean... Kode Zibilak dio berdin dela, *“Familiaburua etxe batean edo horren zati batean bizi bada, erantzukizuna du, bertatik gauzak jaurti edo erori eta gauza horiek eragiten dituzten kalteen gain”.*

Garbi uzten du hau ere: “gurasoena da euren zaintzapeko seme-alabek eragindako kalteen erantzukizuna”.

Erantzukizun Zibil Familiarrak (Etxeko aseguruan sartuta egon edo ez) estaltzen ditu zure etxeak eragindako kalteak

(ur-isuriek, adibidez) eta etxe horretan bizi diren guztiek eragindakoak, ekonomikoki zure mende badaude, nahiz eta adinez nagusi izan. Hauetaz arduratuko da:

(Etxeko) **higiezineta**ko kalteak:

- Erabileraren ondoriozkoak.
- Konponketen ondoriozkoak.
- Maizter batek eragindakoak.

Erantzukizun Zibil Familiarrak ondorengoak estal ditzake:

- Zure maskotek eragindako kalteak.
- Gonbidatu bat elikagaiekin intoxikatuz gero.
- Etxek langileek eragindakoak.

“Mutil bat harriak airera botatzen ari zen, eta hari batek ikastetxeko ikaskide bati jo zion begian. Ikusmena galdu zuen. Mutikoaren gurasoak epailearengana jo zuten, eta epaileak milioi askoko kalte-ordaina ordaintzera zigortu zituen harriak bota zituen hauraren gurasoak”.

Ez da zure kasua, zuk Erantzun Zibil Familiarra duzu-eta. Edo ez?

Gomendio

Udaberriak zure autoa aldatzen du

Sasoi ezegonkorra da udaberria, eguzki betetik eurira edo txingorrera pasa gaitzeko minutu gutxitan, eta horrek errepideko ezbehar-kopurua handitzen du. Hala ere, zeru urdin dirdiratsu baten azpian egun atsegin bat pasatzeko asmoz, besterik gabe irteten gara. Hona hemen hainbat aholku erraz irteera horiek inork edo ezerk zapuztu ez diezazkigun :

- Errespetatu beti errepideko seinaleak, bai eta klimatologiaren inguruko aholkuak ere. Batez ere, gehieneko abiadura-mugen seinaleak, eta zaindu segurtasun-tartea.
- Eurria, txingorra edo lainoa badago, piztu argi laburrak, ikus gaitzaten, eta beharrezkoa izanez gero, baita lainotako argiak ere, abiadura moteldu eta saiatu freno ez ukitzen. Handitu segurtasun-tartea. Edota autoa galtzadatik kanpo geratu eta itxaron.
- Prestatu zure ibilgailua: ziurtatu argiak ongi daudela, beira-garbigailuak ongi dabiltzala eta eskuilak ere ongi daudela. Gurpiletako airea egokia dela eta konprobatu ordezko gurpila daramazula. Bateria eta izotz-kontrakoaren maila ere begiratu, maletategian nahitaezko elementu guztiak daramatzazula ziurtatu. Eta garbitu ezazu...

Ez ahaztu Errepideko Asistentzia telefonoa eramatea. Gure aseguru-artekaritzan, Adis-kidetasunezko Istripu-aitorpenarekin batera ematen dizugu.



Anekdotak

Isuna, Homer Simpson balitz bezala gidatzeagatik

Milton Keynesen gertatu zen, Ingalaterran. Polizia batek ibilgailu bat geratu zuen, eta gidabaimena eskatu zuen... Homer Simpsonen izenean zegoen. Haren jaiotza-data, helbidea eta sinadura zituen. Gidabaimena faltsua zen, noski .

Gidabaimen faltsua edukitzeagatik eta aseguru gabe gidatzeagatik jarri zioten isuna gidariari.

